# 2003ko Memoria
# Donostia Kultura

Liburutegiak Bibliotecas

Kultur Etxeak Centros Culturales

San Telmo Museoa Museo San Telmo

Antzerki Feria Feria de Teatro

Musika Música

Ikastaroak Cursillos

Erakusketak Exposiciones

Beldurrezko Astea Semana de Terror

Zinema Cine

Dantza Danza

Antzerkia Teatro

Literatura Literatura



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostia Kultura

# Aurkibidea


**3** Langileak, balantze ekonomikoa eta dirulaguntzak
**4** Komunikazioa eta Irudia
**5-8** Liburutegi Zerbitzua
Liburutegi Nagusia
Alderdi Eder: Tel.: 943 481486 Faxa: 943 481490
Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioa
Fermin Kalbeton 25, Tel. 943 481999 Faxa: 943 481195
**9-10** Kultur Ekintzarako Zerbitzua
**11** Ernest Lluch Kultur Etxea (Amara)
Anoeta pasealekua, 7 (Amara) Tfno.: 943 481919
**11** Casares Kultur Etxea
Darieta bidea, 1 (Altza): Tel.: 943 351149 Faxa: 943 354046
**12** Altza Kultur Etxea
Larratxo pasealekua, 55: Tel.: 943 396494 Faxa: 943 354046
**12** Egia Kultur Etxea
Baztan, 21: Tel.: 943 291514 Faxa: 943 287219
**13** Larrotxene Kultur Etxea
Intxaurrondo, 57 (Intxaurrondo): Tel.: 943 291954 Faxa: 943 292746
**13** Intxaurrondo Berri Kultur Etxea
Gaztela, 2: Tel.: 943 279343 Faxa: 943 275241
**14** Loiola Kultur Etxea
Aralar, 17: Tel.: 943 454605 Faxa: 943 473498
**14** Lugaritz Kultur Etxea
Heriz, 20 (Antiguo): Tel.: 943 310780 Faxa: 943 310781
**15** Okendo Kultur Etxea
Nafarroa Etorbidea, 7: Tel: 943 290672 Faxa: 943 290721
**16** Arte Eszenikoak eta Musika
**17** Antzoki Zaharra
Nagusia, 3: Tel.: 943 426112 Faxa: 943 422835
**18** Donostiako Antzerki Feria 2003
**19** Zinema eta Bideoa
**20** Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XIV. Astea
**21** Aldi baterako erakusketak
**22** San Telmo Museoa


## Donostia Kulturaren Bulegoak

Konstituzio Plaza, 1 Tel.: 943 481150 Faxa: 943 481189 20003 Donostia-San Sebastián

## Donostia Kultura Txartela

18.474 bazkidek etekina ateratzen diote DK txartelari: beherapenak emanaldietan, kulturako agenda jasotzen dute, zozketak, etab. Gainera, KUTXA-DONOSTIA KULTURA txartela martxan jarri dugu 2003. urtean zehar. Honi esker, ekitaldietarako sarrerak elektronikoki lor daitezke, bestelako abantailen artean.



# Balantze Ekonomikoa

| | |
|---|---|
| **SARRERAK** | **10.533.834,55 €** |
| Udalaren dirulaguntza | 8.996.926,82 € |
| Foru Aldundiaren dirulaguntza | 194.070,65 € |
| Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza | 273.212,88 € |
| Beste hainbat dirulaguntza | 181.394,97 € |
| Kultura Ministerioa | 27.050,00 € |
| Babesleak | 32.681,86 € |
| Jardueren sarrerak | 437.298,01 € |
| Alokairuak | 232.551,83 € |
| Argitalpenak | 45.780,00 € |
| Beste hainbat | 112.867,53 € |
| | |
| **GASTUAK** | **10.533.834,55 €** |
| Langileen gastuak | 5.356.576,87 € |
| Konponketak eta mantentze-lanak | 297.642,72 € |
| Bulegoko materiala | 111.165,94 € |
| Hornikuntzak eta komunikazioak | 544.118,11 € |
| Aseguruen primak | 78.160,20 € |
| Zergak | 84.927,63 € |
| Enpresa gehiagoren jarduerak eta jardunak | 2.554.691,53 € |
| Publizitatea eta propaganda | 536.310,66 € |
| Dirulaguntzak | 190.460,78 € |
| Inbertsioak | 779.780,11 € |




# Donostia Kulturak Emandako Dirulaguntzak

**13** hitzartuak (hainbat Elkarterekin egindako hitzarmenen bitartez)
78.732,58 €

**5** Dirulaguntza zuzenak
39.065,77 €

**87** kultur programak eta jarduerak antolatzeko hainbat elkarteri emandako dirulaguntzak
69.574,00 €

**GUZTIRA**
**187.372,35 €**

# Komunikazioa eta Irudia

2003an Donostiako hirian garatu den kultur jardueraren protagonista nagusietakoa izan da DONOSTIA KULTURA; landu dituen programazioa, jarduerak eta zerbitzuak jendartean ezagutzera emateko hainbat bitartekoz baliatu da, besteak beste:

- jardueren programak (liburuxkak) 150
- Egunkarietako gehigarrietan 3
- Promozioak (kartelak, gonbidapenak, etab.) 70
- Katalogoak, liburuak, aldizkariak, etab. 11
- Prentsaurrekoak 147
- Toki-prentsan eta estatuko prentsan jarritako iragarkiak 360
- Toki-irratiko mikroespazioak 220
- Toki-telebistetan egunero jarritako promozio-espazioetan520

DONOSTIA KULTURAK 2003. urtean kaleratu dituen argitalpenen artean, azpimarragarriak dira: Donostiako Liburutegi Zerbitzuko 1992-2002 memoria, Nosferatu aldizkariak Federico Luppi & Adolfo Aristarain eta Akira Kurosawari eskainitako zenbakiak, Julian Ugarteri, Nestor Basterretxeari eta Zuloagari San Telmo Museoak eskainitako katalogoak, eta Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XIV. Asteak John Carpenterri buruz argitaratu duen liburua.












# Altzako Irrati-Tailerra

Frekuentzia: 107.4 FM

2003. urtean tailerrean parte hartu duen lagun-kopurua: 23

Eguneko emisio-orduak: 24



# Agendaren Bidalketa Elektronikoa

Ekitaldi honetan zehar hilero Donostiako kultur agendaren bidalketa elektronikoaren zerbitzua gehitu da. Gainera, komunikabideetako inpaktuaren digitalizatze prozesua finkatu da: 6465 erregistro eta 172 prentsa-txosten oso.






# LIBURUTEGIEN ZERBITZUA

(Liburutegi Publikoen Udal-Sarea)

| | |
|---|---|
| **Liburutegi kopurua:** | 13 |
| Bilduma modernoko **fondoak** | 195.581 |
| - Altak | 21.528 |
| - Bajak | 7.537 |
| - Bildumaren hazkundearen % | %12,3 |
| - Bilduma berritzearen % | %11 |
| Bilduma historikoko fondoak | 65.000 |
| **Erabilera publikorako ordenagailuak** | 187 |
| - Interneterako sarrera-postuak/cd rom | 167 |
| - Katalogorako sarrera-postuak (OPAC) | 20 |
| Liburutegi Zerbitzuko **Bazkideak** | 64.693 |
| - 2003. urteko bazkide berriak | 7.222 |
| Liburutegietara egindako **bisitaldiak** | 804.651 |
| - Eguneko bisitaldien batez b. | 3.032 |
| **Maileguak** | 376.240 |
| - Eguneko maileguen batez b. | 1.443 |
| **Internet-cd rom bidezko kontsultak** | 85.612 |
| - KZguneetan | 66.825 |
| - Aretoetan | 18.787 |
| **Jarduera kopurua** | 478 |
| Parte-hartzaileak | 28.588 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 287 |



Aurreko urteetan bezala, liburutegietako jardueren kopuruak gorakada nabarmena izan du, Okendo Kultur Etxea urte osoan handitze-lanen ondorioz itxita egon bada ere.

Zerbitzuen dinamismo handia eta etekin altua agerian geratu da egunero: 1443 dokumentu maileguan uzten dira batez beste, eta 3032 pertsonen bisita jasotzen dute egunero liburutegiek, hau da, urtean biztanleko 2 mailegu baino gehiago egiten dira, eta batez beste 4 bisita biztanleko jasotzen dituzte liburutegiek; bi kopuru hauek oso positiboak dira, gure inguruko beste errealitate batzuen kopuruekin alderatzen baditugu.

Azkenik, bestelako egitasmoen artean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz egiten den **Haur Liburuaren Dokumentazio Gunea**ren garapena nabarmendu beharrekoa da, eta baita Donostiako Udaleko Hezkuntza Departamenduarekin batera garatutako **Ikastetxeetako Liburutegien hobetze eta garapenerako** egitasmoa ere.





Honakoak dira liburutegi zerbitzuaren datu zehatzak:

**Liburutegi Nagusia. Alderdi Eder**

| | |
|---|---|
| Fondo historikoak | 65.000 |
| Alderdi Ederreko fondoak | 35.493 |
| Bazkide berriak: | 2.177 |
| Bisitariak | 337.781 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 1.141 |
| Maileguak | 117.939 |
| Eguneko maileguen batez b. | 398 |
| Internet-cd rom kontsultak | 16.927 |
| Fondo historikoan egindako kontsultak | 1.799 |
| Atzera begirako prentsaren kontsultak | 4.375 |
| Ikus-entzunezkoen kontsultak | 2.422 |
| Jarduera kopurua | 70 |
| Parte-hartzaileak | 17.827 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 21 |



**Liburutegi Nagusiko Haur Sekzioa**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 18.469 |
| Bazkide berriak | 559 |
| Bisitariak | 32.459 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 113 |
| Maileguak | 26.942 |
| Eguneko maileguen batez b. | 94 |
| Internet-cd rom kontsultak | 2.581 |
| Jarduera-kopurua | 89 |
| Parte-hartzaileak | 1557 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 34 |



**Altza Kultur Etxeko Liburutegia (Larratxo)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 9.047 |
| Bazkide berriak | 117 |
| Bisitariak | 11.655 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 53 |
| Maileguak | 8.115 |
| Eguneko maileguen batez b. | 36 |
| Internet-cd rom kontsultak | 2.280 |
| Jarduera-kopurua | 31 |
| Parte-hartzaileak | 443 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 19 |

**Casares Kultur Etxeko Liburutegia (Altza)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 16.942 |
| Bazkide berriak | 359 |
| Bisitariak | 19.181 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 86 |
| Maileguak | 15.080 |
| Eguneko maileguen batez b. | 67 |
| Internet-cd rom kontsultak | 538 |
| Jarduera-kopurua | 14 |
| Parte-hartzaileak | 121 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 15 |



**Egia Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 17.597 |
| Bazkide berriak | 450 |
| Bisitariak | 46.332 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 206 |
| Maileguak | 31.579 |
| Eguneko maileguen batez b. | 140 |
| Internet-cd rom kontsultak | 10.647 |
| Jarduera-kopurua | 72 |
| Parte-hartzaileak | 2.306 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 17 |



**Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Amara)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 16.857 |
| Bazkide berriak | 1.744 |
| Bisitariak | 181.522 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 611 |
| Maileguak | 71.979 |
| Eguneko maileguen batez b. | 242 |
| Internet-cd rom kontsultak | 26.511 |
| Jarduera-kopurua | 29 |
| Parte-hartzaileak | 1.648 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 31 |



**Intxaurrondo Berri Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 14.178 |
| Bazkide berriak | 604 |
| Bisitariak | 60.757 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 269 |
| Maileguak | 39.126 |
| Eguneko maileguen batez b. | 173 |
| Internet-cd rom kontsultak | 2.024 |
| Jarduera-kopurua | 21 |
| Parte-hartzaileak | 424 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 24 |

**Larrotxene Kultur Etxeko Liburutegia (Intxaurrondo)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 8.693 |
| Bazkide berriak | 251 |
| Bisitariak | 13.410 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 60 |
| Maileguak | 12.858 |
| Eguneko maileguen batez b. | 58 |
| Internet-cd rom kontsultak | 5.670 |
| Jarduera-kopurua | 49 |
| Parte-hartzaileak | 786 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 20 |



**Loiola Kultur Etxeko Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 15.422 |
| Bazkide berriak | 266 |
| Bisitariak | 34.517 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 153 |
| Maileguak | 16.148 |
| Eguneko maileguen batez b. | 71 |
| Internet-cd rom kontsultak | 2.288 |
| Jarduera-kopurua | 30 |
| Parte-hartzaileak | 555 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 25 |

**Lugaritz Kultur Etxeko Liburutegia (Antiguo)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 18.009 |
| Bazkide berriak | 695 |
| Bisitariak | 37.849 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 167 |
| Maileguak | 30.331 |
| Eguneko maileguen batez b. | 134 |
| Internet-cd rom kontsultak | 11.773 |
| Jarduera-kopurua | 30 |
| Parte-hartzaileak | 704 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 60 |

**Okendo Kultur Etxeko Liburutegia (Gros)**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 17.254 |
| Handitze-lanen ondorioz itxita | |

**Urgull Mendiko Udako Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 3.120 |
| Bisitariak | 4.516 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 51 |
| Cd rom bitartez egindako kontsultak | 382 |
| Jarduera-kopurua | 23 |
| Parte-hartzaileak | 1.119 |

**Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia**

| | |
|---|---|
| Fondoak | 4.500 |
| Bisitariak | 24.672 |
| Eguneko bisitarien batez b. | 122 |
| Maileguak | 6.143 |
| Eguneko maileguen batez b. | 30 |
| Internet-cd rom kontsultak | 74 |
| Musikari buruzko kontsultak | 760 |
| Jarduera-kopurua | 20 |
| Parte-hartzaileak | 1.098 |
| Liburuxkak, gidak, berritasunen orriak… | 21 |



# KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUA

Hiru lan ardatzetan oinarritzen da **Kultur Ekintzako Zerbitzua**:

**a) Lurralde-Zerbitzua:**
Hiri osoan zehar banatutako 9 Kultur Etxek osatzen duten sarearen bitartez, honako jarduera eta zerbitzuok eskaintzen baitituzte:
**Kultur Etxeak**

| JARDUERAK | Jard. kopurua | Erabiltzaile kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 220 | 33.934 |
| Musika | 116 | 20.991 |
| Dantza | 35 | 9.108 |
| Zinema eta Bideoa | 186 | 29.467 |
| Ikastaroak eta tailerrak | 892 | 7.294 |
| Erakusketak | 77 | 37.960 |
| Liburutegiko jarduerak | 487 | 6.987 |
| Hitzaldiak | 98 | 4.702 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 930 | 30.297 |
| Alokairuak | 391 | 29.872 |
| **ZERBITZUAK** | | **Erabiltzaile kop.** |
| Liburutegiko Bisitariak | | 405.223 |
| KZgunea | | 46.205 |
| Gazteleku | | 8.376 |
| Plus55 | | 282 |
| **ERABILTZAILEAK GUZTIRA** | **4.058** | **670.698** |

Kultur Etxerik ez duten auzoetan zerbitzuen, programen eta jarduera kulturalen antolakuntzarako lankidetza-hitzarmenak sinatzen dira bertako Elkarteekin. Ondorengo hitzarmenak sinatu ziren 2003. urtean zehar:

| | |
|---|---|
| - Etxadi Kultur eta Kirol Elkartea eta Lantxabe elkartea | Aiete Auzoa |
| - Igeldoko Herri Kontseilua | Igeldo Auzoa |
| - Añorga Kultur eta Kirol Elkartea | Añorga Auzoa |
| - Mundo Nuevo Elkartea | Amara Zaharra Auzoa |
| - Zubietako Herri Batzarra | Zubieta Auzoa |
| - IRSE Elkartea | Martuteneko Espetxea |

Kulturgune berriei buruz, Ernest Lluch Kultur Etxearen bigarren faseari ekin zaio aurten, eta Okendo Kultur Etxeko handitze-lanak ere amaitu dira (2004. urtearen hasieran inauguratuko dute). Azkenik, Altzan Casares Kultur Etxea handiagotzeko asmoz egingo den Tomasene Baserria birgaitzeko egitasmoan aurrerakada handia eman da.







Kultur Etxeen arteko lankidetzan garatu diren jarduerei dagokienez, honako hauek aipamen berezia merezi dute: Poltsikoko Antzerkiaren Jaialdia, Kaleko Zinemaren Jaialdia, Kaleko Antzerkiaren Jaialdia, antzerki eta dantzako programazio egonkorra (helduentzat, gazteentzat eta haurrentzat), bideo- eta irrati-tailerrak, musika klasikoko kontzertuak, abesbatzak, toki-musika, pop-rock, etab., hau da, hiritarren eskaerak eta kezkak bete nahi dituzten jarduera-sorta handia eskaini da.

**b) Sektorekako Zerbitzua:**

Kultur ekintzako zerbitzuak, sektorekako (haurrak, gazteak, emakumeak, 3. adina, etab.) ikuspuntua ezartzeko lan-ildoan oinarrituta parte hartu nahi izan du.
Funtsezkoa izan da urte hau zentzu honetan. Alde batetik, udaleko alor sektorialek eskainitako zerbitzuak integratzeko akordioa ("funtzionamendurako protokoloa") iritsi da; eta bestetik, gure Kultur Etxeetako sektorekako zerbitzuen integrazio jarraituan aurrerakada handia egin da, gazteentzako bi gune irekitzeari eta 3. adinekoei espezifikoki eskainitako zerbitzua abian jartzeari esker.
Gainera, bestelako instantziekin elkarlanean jarraitu dugu gizarteko sektore ezberdinei zuzendutako programak garatzeko asmoz. Besteak beste ondorengo programen bitartez bete ahal izan da: Gaztemaniak!, Gau:on, Donostia Munduen Artean, Gabonak Zuretzat, Irudi Biziak, ikasketa gelak, etab.

**c) Kultur Etxeetan integratu diren zerbitzuak:**

• **Gazteentzako guneak (Gaztelekuak)**

Gaztelekuak gazteei aisialdia partaideta, lankidetza eta hezkuntza prozesuen bitartez erabiltzeko bidea emateko guneak dira.
Amarako Kultur Etxean Gaztelekua ireki zen maiatzean, eta gauza bera egin zen Egia Kultur Etxean ekainean.
Abian jarri zirenetik denbora gutxi pasa denez, esperientzia hauei buruzko ondorioak ateratzeko goizegi da oraindik. Baina bi Gazteleku hauen esperientzia oso positiboa izan dela uste dugu, hornikuntza berri hauek eskaintzen dutena ezagutzera gazte asko hurbildu baita.

Jarduera kopurua: 8
Elkargune hauetako erabiltzaileen kopurua: 8.376

• **Plus + 55**

Donostia Kulturako Kultur Etxeek 55 urte baino gehiago dutenentzako aisiarako eta denbora-tarte librerako programak eskaintzen dituzte, Gizarte Ongizatearen Batzordeak eta Donostia Kulturak bultzatuta.
Talde honetako boluntarioek bultzatutako eta jorratutako egitasmoei eta ekimenei sostengua ematea da zerbitzu honen helburua, baita Kultur Etxeak 55 urte baino gehiago duten pertsonen sozializazio gune izatea, eta jarduera eta zerbitzu eskaintzak bultzatzea ere.
Ernest Lluch Kultur Etxeak hartu ditu 2003. urtean zehar (5 hilabetez) programa honen lehen jarduerak, besteak beste: Hitzaldi-zikloak, Larunbatak Dantzan, Kont-arte (koadroen interpretazioa), Gida-Zerbitzuak…

Boluntario kopurua: 7
Erabiltzaile kopurua: 282
Boluntario nagusiek sustatutako jarduera kopurua: 10

• **KZgunea**

Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz sortutako eta kudeatutako Interneterako sarrera eta doako prestakuntza-sarea da. Gure hirian 6 gune daude. KZgunea daukaten Kultur Etxeak hauek dira: Ernest Lluch, Egia, Larrotxene, Casares eta Lugaritz. 2004. urtean zehar Okendo Kultur Etxean ere KZgunea zerbitzua abian jartzea aurreikusi da.

| | |
|---|---|
| Nabigatzeko izena eman dutenen kopurua | 4.304 |
| Nabigatze-erabilera kopurua | 66.825 |
| Prestakuntzarako izena eman dutenen kopurua | 2.177 |
| Jorratu diren ikastaroen kopurua | 687 |

## Ernest Lluch Amarako Kultur Etxea

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa | 55 | 5.124 |
| Hitzaldiak | 33 | 1.187 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 238 | 2.158 |
| Erakusketak | 9 | 2.218 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 384 | 10.794 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 229 | 12.173 |
| Liburutegien jarduerak | 60 | 1.648 |
| | | |
| ZERBITZUAK | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 181.522 |
| KZgunea | | 20.602 |
| Gaztelekua | | 5.630 |
| Plus +55 | | 282 |
| **GUZTIRA** | **1.008** | **243.338** |

Kultur Etxearen bigarren fasea irekitzea izan da 2003. urteko ezaugarri nagusia. Honi esker, eskainitako zerbitzuak zabalagoak dira: gazteen gune berria (gazteleku), erakusketa-gela berri bat, ekitaldi-aretoa tokiz aldatzea, eta +55 zerbitzua abian jartzea. Jardueren kopurua eta erabiltzaileena gorantz doa. Kultur etxea batzarrak egiteko eta beste hainbat jarduera antolatzeko erabiltzen duten elkarteak asko dira. Hainbat programa jorratzerakoan, udaleko bestelako erakunde eta sailen laguntzarekin egiten dira. KZgunea eta Liburutegia dira gure bisitariek bereziki eskatzen dituzten zerbitzuak.





## Casares Kultur Etxea (Altza)

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa | 24 | 3.448 |
| Hitzaldiak | 15 | 530 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 101 | 589 |
| Erakusketak | 1 | 100 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 90 | 927 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 15 | 832 |
| Liburutegien jarduerak | 29 | 121 |
| | | |
| ZERBITZUAK | | |
| KZgunea | | 6.521 |
| Liburutegiko Bisitariak | | 19.181 |
| **GUZTIRA** | **275** | **32.249** |

Jarduera eta erabiltzaile kopuruaren hazkunde nabarmena izan du Casares Kultur Etxeak. Emandako ikastaroen gorakada nabarmena aipatu beharrekoa da, 2002. urtean baino %30 gehiago izan baitira. Irrati-seinalearen potentzia handitzeak, irrati hau Donostialdearen zati handi batean entzun ahal izatea ekarri du. Altzako Lekuko Bilduma da kultur etxe honen erreferentzia garrantzitsuenetako bat. KZgunea, aldiz, kultur etxe honetako zerbitzurik garrantzitsuenetako bat izatera iritsi da.

## ALTZA KULTUR ETXEA (LARRATXO)

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa | 35 | 4.654 |
| Hitzaldiak | 9 | 1.056 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 7 | 93 |
| Erakusketak | 2 | 494 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 95 | 5.075 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 27 | 2.316 |
| Haur Liburutegiaren jarduerak | 50 | 443 |
| | | |
| ZERBITZUAK | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 11.655 |
| **GUZTIRA** | **225** | **27.120** |

Urte honetan zehar Altza Kultur Etxeak hartu dituen jarduera jendetsuei esker erabiltzaile kopurua asko hazi da. Jarduera garrantzitsuenen artean, bertako taldeen kontzertuak izan dira; berauetan, gure inguruko aniztasun musikala agerian gelditu da. Haurren antzerkiak ere hilero-hilero handituz joan den ikusle kopurua ekarri du. Azkenik, Larratxoko Haur Liburutegian antolatu diren jardueren gorakada nabarmendu beharrekoa da.

## EGIA KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 51 | 6.312 |
| Dantza | 20 | 3.215 |
| Zinema/Bideoa | 3 | 900 |
| Musika | 39 | 9.013 |
| Hitzaldiak | 9 | 269 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 155 | 1.675 |
| Erakusketak | 24 | 7.660 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 90 | 889 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 73 | 7.957 |
| Liburutegiaren jarduerak | 89 | 2.306 |
| | | |
| ZERBITZUAK | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 46.332 |
| Gaztelekua | | 2.746 |
| KZgunea | | 8.974 |
| Ikasketa gela | | 3.830 |
| **GUZTIRA** | **554** | **102.078** |





Egia Kultur Etxearentzat 2003.a jarduera bizien urtea izan da. Donostiako arte eszenikoen eta musikaren topaleku garrantzitsuenetakoan bilakatu da **GAZTESZENA**. Urte honetan zehar 100 funtzio baino gehiago egin dira, eta estilo ezberdinek eta proposamen berritzaileek programazioa interesgarria izatea ekarri dute. Liburutegi zerbitzuak, ikasketa gelak, ikastaro eta tailerrek, erakusketek edo Kultur Etxean nahiz Egia auzoko hainbat guneetan jorratu diren jarduerek parte-hartze handia izan dute. Kultur Etxearen dinamikan zerbitzu berri bat gehitu da: Egiako Gaztelekua, gazteen arteko topalekua eta parte-hartzea bultzatzeko gunea. Gune dinamiko honen ebaluazioa ere positiboa da, eta proposamen eta egitasmo berriak hartzeko prest ageri da.





# LARROTXENE KULTUR ETXEA (INTXAURRONDO)

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika eta dantza | 15 | 1.355 |
| Zinema eta bideoa | 48 | 1.906 |
| Hitzaldiak | 1 | 120 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 130 | 575 |
| Erakusketak | 8 | 1.832 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 20 | 216 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 14 | 2.413 |
| Liburutegiaren jarduerak | 69 | 786 |
| | | |
| **ZERBITZUAK** | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 13.410 |
| KZgunea | 121 | 2.962 |
| **GUZTIRA** | **426** | **25.575** |

Ikus-entzunezkoetan Kultur Etxearen hiru espezializazio-alderdiek (prestakuntza, ekoizpena eta erakusketa) garapen nabarmena izan dute, bai egindako ikus-entzunezko ekoizpenetan, baita zinemaren munduarekin erlazioa duten programazio-diseinuetan ere. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean Kultur Etxearen parte-hartzea eta "Berriketan / Charlando con…" programaren finkatzea honen adibide garbiak dira.
Eskaera jarraitua izan du ikastaroen, mintegien eta Interneteko nabigazio askearen bidezko teknologia berrietara hurbiltzeko interesak, bai helduen artean (KZgunean), eta baita liburutegiko erabiltzaile gazteenen artean ere.

Udako zinema-programak eta musikarekin eta antzerkiarekin lotutakoak izan dira jarduera arrakastatsuenak.





# INTXAURRONDO BERRI KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa | 19 | 3.912 |
| Hitzaldiak | 5 | 170 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 11 | 141 |
| Erakusketak | 2 | 281 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 12 | 71 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 9 | 1.245 |
| Haur Liburutegiaren jarduerak | 45 | 424 |
| | | |
| **ZERBITZUAK** | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 60.757 |
| **GUZTIRA** | **103** | **67.001** |

Liburutegiko jardueretako partaideen gorakada nabarmena izan du. Horrela, 5 urte baino gutxiago dutenen presentzia aipagarria da. Urtean zehar eskaini diren ikastaroetan izena eman dutenen kopurua ere hazi da, eta haurrentzako programazioa finkatu da, Intxaurrondoko haurrentzako hileroko hitzordu izateraino iritsi arte.

# LOIOLA KULTUR ETXEA

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa | 41 | 10.284 |
| Hitzaldiak | 15 | 999 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 26 | 428 |
| Erakusketak | 18 | 19.820 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 46 | 3.963 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 23 | 900 |
| Haur Liburutegiaren jarduerak | 55 | 555 |
| | | |
| **ZERBITZUAK** | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 34.517 |
| **GUZTIRA** | **227** | **71.466** |



Auzoko elkarteen eta udaleko bestelako sailen eta erakundeen laguntzarekin lanak bizitu ditu Kultur Etxeak.
Musikako programari dagokionez, organo eta tronpetarako Gorka Cuesta musikagile donostiar gazteak egin duen "Les larmes du feu" lanaren estreinaldi absolutua nabarmenduko genuke.
Oso harrera ona izan dute pertsonen garapenarekin erlazioa duten ikastaro berriek: Barreterapia, Erretorika eta oratoria, Gorputz-mintzaira…
Liburutegiko jarduerak eta zerbitzuak asko aberastu dituzte liburutegi-jarduerek eta jarduera literarioek (Hitzaldiak, Ipuinaren ordua, Literatur Lehiaketa, Olerki-topaketak, Liburuen aurkezpenak eta Bloomsday) eta liburutegiko euskarri tekniko berriek: cd rom, haurrei eskainitako internet, dvd…

# LUGARITZ KULTUR ETXEA (ANTIGUO)

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia | 70 | 9.170 |
| Dantza | 4 | 1.220 |
| Musika | 10 | 1.527 |
| Zinema-Bideoa | 93 | 15.917 |
| Hitzaldiak | 7 | 121 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 209 | 1.269 |
| Erakusketak | 12 | 4.775 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak Lugaritz KEn | 208 | 2.362 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak Azoka zaharrean | 809 | 27.771 |
| Alokairuak eta beste hainbat | 15 | 2.036 |
| Liburutegiaren jarduerak | 90 | 704 |
| | | |
| **ZERBITZUAK** | | |
| Liburutegiko Bisitariak | | 37.849 |
| KZgunea | | 10.881 |
| **GUZTIRA** | **1.527** | **115.602** |

Formatu txikiko antzerkiaren munduan Kultur etxe hau erreferentziazko gune eszenikotzat finkatu da, antzerkiarekin, musikarekin eta dantzarekin erlazioa duten ekitaldietako batez besteko betetzea %70ekoa izan baita. Antzerkiko zein zinemako haurren ekitaldiek ikusle ugari biltzen dituztela ere nabarmendu behar da. Kalerako programatu diren jarduerek ere ikusle kopuru handia biltzen dute. Bestelako ziklo eta zerbitzuek azken urteotako irmotze ildoari eusten diote, zerbitzuen nahiz guneen optimizazio-mugaraino iristen ari baita Kultur Etxe hau.



Antiguoko Azokak antolatutako jarduerak %30 hazi dira, eta erabiltzaileen kopurua %100; hau da azken urtean izan den daturik nabarmenena, elkarte ezberdinen arteko sinergiak bilatzen baititu. Iazko urrian KZgunea zerbitzua abian jartzeak ere bultzada handia eman dio. Zerbitzu eta programa hauek finkatzea eta euskarazko kontzertuen programazio egonkorra lortzea dira datorren urterako ezarri ditugun helburuak.

# OKENDO KULTUR ETXEA (GROS)

| JARDUERAK | Zenbat | erabiltzaile-kop. |
|---|---|---|
| Antzerkia, musika, dantza eta zinema-bideoa | 22 | 15.657 |
| Hitzaldiak | 4 | 250 |
| Ikastaroak eta Tailerrak | 15 | 266 |
| Erakusketak | 1 | 780 |
| Elkarteen bilerak eta jarduerak | 2 | 6.000 |
| **GUZTIRA** | **44** | **22.953** |

Aurten amaitu dira Kultur Etxearen handitze-lanak. Hala ere, Kultur Etxea ezingo da bere osotasunean 2004. urtera arte erabili; eta honek Kultur Etxeko jarduerak asko murriztu ditu. Antolatu diren jardueren artean, aipatzekoak dira ikusle asko erakarri zituen Zinema Kalean udako programazioa (Kursaaleko terrazan), auzoko hainbat jaitako parte-hartzea, xake jokoari buruzko erakusketa eta sormen literarioa, reflexoterapia eta pinturari buruz antolatu diren interes handiko ikastaroak.















# Arte Eszenikoak eta Musika

| | LANAK | FUNTZIOAK | IKUSLEAK |
|---|---|---|---|
| ANTZERKIA | | | |
| Antzerki Feria | 29 | 44 | 19.402 |
| Neguko denboraldia | 35 | 105 | 23.491 |
| Haur-antzerkia | 36 | 61 | 8.130 |
| Udako denboraldia | 11 | 68 | 25.266 |
| Poltsikoko Antzerkia | 9 | 22 | 1.350 |
| Amateur antzerkia | 53 | 53 | 4.477 |
| Kaleko antzerkia | 13 | 28 | 7.770 |
| Beldurrezko antzerkia kalean | 2 | 4 | 5.300 |
| Hainbat | 9 | 9 | 773 |
| **GUZTIRA** | **197** | **394** | **95.959** |
| LIRIKA | 2 | 5 | 2.416 |
| **GUZTIRA** | **2** | **5** | **2.416** |
| MUSIKA | 113 | 113 | 22.777 |
| **GUZTIRA** | **113** | **113** | **22.777** |
| DANTZA | 34 | 35 | 9.108 |
| **GUZTIRA** | **34** | **35** | **9.108** |
| LANKIDETZAK | 35 | 35 | |
| **GUZTIRA** | **35** | **35** | |
| | | | |
| **GUZTIRA** | **381** | **582** | **130.260** |

Birgaitze lanengatik Victoria Eugenia Antzokia erabiltzea ezinezkoa izateak asko eragiten du Donostia Kulturako Arte Eszenikoen eta Musikaren programazioan. Antzoki bikain hau erabiltzea ezinezkoa izan bada ere, artista handiek bisitatu dute gure hiria: José Luis López Vázquez, Concha Velasco, Arturo Fernández, Nati Mistral, Alberto San Juan, Guillermo Toledo, Anabel Alonso, Carlos Latre, Amparo Larrañaga, Carlos Sobera edo Rafael Alvarez "El Brujo", adibide batzuk jartzearren. Hauez gain, euskal eszenako artisten ordezkaritza ere zabala izan da. Valle Inclán, Gala edo Couse idazleen testu garrantzitsuak antzeztu dira. Programazioak publiko sorta guztiak hartu nahi izan ditu, gaztetxoenetatik helduenetaraino, eta Donostia Kulturak kudeatzen dituen gune ezberdinetan banatu eta dibertsifikatu dira.

Erabiltzaileen kopurua asko handitu da: 95.959 pertsona (%2,46). Nabarmenena Udako Denboraldi bikaina izan da, 25.266 ikuslerekin bere marka hautsi baitu. Antzerki Feriari buruz gauza bera esan daiteke, 3.658 pertsona gehiago hurbildu baita bertara. Antzoki Zaharrean eta Lugaritz, Egia eta Altza Kultur Etxeetan haurrei eskainitako programazio egonkorrek izan duten arrakasta ere nabarmendu behar da. Egia Kultur Etxeak eskaini duen musika programazioak kopuru bikainak agertu ditu, eta dantza garaikidearen programazioa finkatzea lortu du. Lugaritz Kultur Etxeak arreta formatu txikian eta haurrentzako antzerkian ezarri du, eta batez besteko bertaratze kopuru ikusgarriak lortu ditu bi espezialitateetan.








# Antzoki Zaharra

| | LANAK | FUNTZIOAK | IKUSLEAK |
|---|---|---|---|
| Antzerki Feria | 5 | 5 | 1668 |
| **Neguko denboraldia** | | | |
| Antzerkia | 19 | 58 | 17.985 |
| Haur-antzerkia | 6 | 6 | 906 |
| Amateur antzerkia | 7 | 7 | 1.428 |
| Beldurrezko antzerkia kalean | 2 | 4 | 5.300 |
| Lirika | 2 | 5 | 2.416 |
| Zinema | 181 | 77 | 17.668 |
| Musika | 9 | 9 | 2.480 |
| **GUZTIRA** | **226** | **166** | **48.183** |
| **Udako denboraldia** | | | |
| Antzerkia | 11 | 68 | 25.266 |
| **GUZTIRA** | **11** | **68** | **25.266** |
| **Eskolako antzerkia** | | | |
| **GUZTIRA** | **0** | **0** | **0** |
| **Lankidetzak** | 35 | | |
| **GUZTIRA** | **35** | **0** | |
| **GUZTIRA** | **277** | **239** | **75.117** |

| | |
|---|---|
| Alokairuak | 27 |
| Lankidetzak | 35 |
| **Egunak guztira** | **62** |



2003. urtean zehar Antzoki Zaharrean nabarmendu den fenomenoa Udako Denboraldia izan da, marka guztiak hautsi baititu izan duen hazkunde garrantzitsuak. Udako hilabeteetan 3.320 pertsona gehiago hurbildu dira Antzokira. Urtez urte hazten joan da eta, beraz, Antzokiaren emaitzek izan duten azken urteotako joera sendotu da, baita neguko denboraldian ere: 17.985 pertsona gehiago. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea ere nabarmendu nahiko genuke, oso parte-hartze kopuru garrantzitsua lortu baitu: 5.300 ikusle.

Ikusle helduei eskainitako euskarazko antzerkien programazioa finkatzea lortu da, eta honen lekuko, aurreko urtean Donostiako eszenatokietatik pasa diren helduei eskainitako euskarazko ikuskizun guztien arteko "Donostia Saria" jaso duen ikuskizuna bertan ikusi ahal izan da. Guzti hau Udaleko Euskara Patronatuaren eta Donostia Kulturaren elkarlanari esker lortu da. Urte honetan saritutako ikuskizuna Ados Teatroak antzeztutako "John Wayneren laguna" lanari eman zaio.

Zinemako programazioan, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XIV. Asteak eta antolatutako ziklo bereziek izan duten arrakasta handia nabarmendu dira.

Musikaren alorrean Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatu ahal izan den Kontzertu-Zikloa nabarmenduko genuke, unibertsitarioak eta gazteak kultura alorrera erakartzeko asmoz jorratu baitira.

Laburtzeko, 1999. urtean hasitako hazkunde ildoari eutsi diogu, eta alderdi hau, beraz, oso positiboa izan da. Antzoki Zaharrean aurreko urtean zehar antolatu ditugun 301 jarduerez harro gaude.








# Donostiako Antzerki Feria

| FERIAK GUZTIRA | LANAK | FUNTZIOAK | IKUSLEAK |
|---|---|---|---|
| Aretoetako emanaldiak | 23 | 27 | 9.402 |
| Kaleko emanaldiak | 6 | 17 | 10.000 |
| **GUZTIRA** | **29** | **44** | **19.402** |

| GUNE BAKOITZEAN | LANAK | FUNTZIOAK | IKUSLEAK |
|---|---|---|---|
| Lugaritz K.E. | 4 | 6 | 911 |
| Egia K.E. | 4 | 4 | 855 |
| Kursaaleko Ganbara Aretoa | 7 | 7 | 3.366 |
| Kursaal Auditorioa | 3 | 5 | 2.602 |
| Antzoki Zaharra | 5 | 5 | 1.668 |
| **GUZTIRA** | **23** | **27** | **9.402** |



| 2003ko Feriako bestelako datuak | |
|---|---|
| Estreinaldiak: | 10 |
| Programatzaileak: | 190 |
| Banatzaileak: | 29 |

Hamargarren denboraldia bete du Donostiako Antzerki Feriak, eta berau bermatzen duten datu objektiboak gainditu ditu azken urteotan. Bi alderdi bereizgarri aurkeztu ditu aurten: kaleko antzerkiaren agerpen handiagoa eta Iberoamerikari eman zaion protagonismoa. Azken atal honen barruan, Iberoamerikaren eta Espainiaren arteko erlazio artistiko eta ekonomikoei buruzko eztabaida-jardunaldiak antolatu ziren, eta "Protocolo de Iberescena" egitasmoaren sinatzea Donostian egitea erabaki zen. Egitasmo honen arabera, lau herrialderen elkarlana bilatu nahi da, hona: Kolonbia, Txile, Espainia eta Mexiko.

2003. urteko Feriaren balantze orokorra oso positiboa izan da, are gehiago 2002. urtean marka guztiak hautsi zirela jakin ondoren.

Parte hartu duten profesionalen kopuruan eta ikusleen kopuruan hazi da Feria. 190 programatzaile izan dira guztira; hauetatik batzuk Europako Batasunetik (Frantzia eta Portugal) etorri dira. Nabarmenagoak dira Amerikako kontinentetik (Txile, Mexiko, Kolonbia, Brasil, AEB…) etorri diren 29 antzerki-banatzaileak eta komunikabide ugariak. Ikusleriaren erantzuna bikaina izan da: 19.402 ikuslek marka berria ezarri dute, baita denboraldi honetan antolatu diren 44 funtzioek ere.

Donostia Kulturak kudeatu dituen hiru ekipamendu eszenikoetan eta Kursaaleko bi aretoetan 23 ikuskizun programatu dira. 6 ikuskizun egin dira kalean. Guztira 29 funtzio programatu dira. **10 estreinaldi** izan ditugu, eta ekitaldi honetan dantza garaikidean jarri dugu arreta berezia. Gainera, profesionalen arteko topaketak eta hartu-emanak erraztu ditugu. Antzerki sektorearen eztabaidagune, hartu-eman eta akordiorako tokian bilakatu da DONOSTIAKO TEATRO FERIA. Euskal Herriko Unibertsitatearen eta SGAE erakundearen koordinazioz eman zen **"Las artes escénicas como terapia"** izenburuko Udako Ikastaroa nabarmendu nahi dugu.






PROGRAMAZIO ZINEMATOGRAFIKOAREN LABURPEN OROKORRA

| | Egun-kop. | filmak | emanal. | Ikusl-kop. |
|---|---|---|---|---|
| Nosferatu programazioa | 28 | 31 | 28 | 5.169 |
| Ziklo eta saio bereziak | 208 | 293 | 216 | 35.339 |
| Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astea | 9 | 86 | 60 | 17.424 |
| **GUZTIRA** | **245** | **410** | **304** | **57.932** |

ZINEMAREKIN ETA BIDEOAREKIN ERLAZIONATUTAKO JARDUERAK

Zinegileen, zinemako kritikari eta historialarien kopuru garrantzitsuak bisitatu gaitu beste behin ere. Beste batzuen artean, Carlos Giménez, Santiago Segura, Quim Casas, Tomoo Haraguchi, Briony Dixon, Philippe Caza, Lluvia Rojo, Kim Moon-saeng, Lolo Rico, Loquillo, Alaska, Santiago Alba, Takashi Shimizu, Stefan Ruzowitzky, Carlos Boyero, Antonio Gasset, Jordi Costa, Koldo Serra, Robert Parigi, Doris Kloster, Zoe Berriatúa, Manuel Manquiña eta Paul Naschy izan ditugu gure artean.

Azken urteotan gertatu den modura, Donostiako hainbat auzotan kanpoan egin diren emanaldiek izan duten arrakasta eta Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Asteak kritikarien eta ikus-entzuleen artean izan duen erantzun bikaina izan dira nabarmenenak. Azken honek Kursaaleko Kubo Nagusia betez egin zuen Itxiera Ekitaldia. Larrotxene Kultur Etxean bideo-esparruko espezializazioaren aldeko apustua ere finkatu egin da (tailer eta koprodukzio bideografikoak, "Berriketan" programa –zinemagile gazteen eta ikusle donostiarren arteko topaketa ahalbidetzen du-, "Detrás de la cámara" –haur eta gazteei zuzendutakoa-, etab.). Donostiako Lehenengo Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdia izan da lehen aldiz gure artean, Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Tolerantziako Zuzendaritzaren koprodukzioari esker, eta ikusleen aldetik harrera ona izan du.










Astearen hamalaugarren denboraldia izan dugu urriaren 31 eta azaroaren 8a bitartean. 88 pelikula eman dira eta Astearen jardueraren batean parte hartu dute 41.859 ikuslek: emanaldi zinematografikoetan (17.424 ikusle) edo jarduera paraleloetan (kaleko antzerkia, erakusketa, fanzine, etab.).

Euskararen Patronatuarekin batera, euskaraz 12 pelikula eman dira (10 helduentzat eta 2 haurrentzat –Kutxaren babesari esker Kursaaleko Kubo Nagusian izan ziren bi hauek-), eta 3.197 ikusle bertaratu dira.

Katalogoaz gain, *John Carpenter* liburua, *Héroes y Superhéroes europeos* fanzinea (2000 Maníacosen laguntzarekin), eta *Homenaje a Carlos Giménez* (Flash-Backen laguntzarekin) argitaratu dira. Asteak iraun duen egunetan 250 gonbidatu izan ditugu gure hirian. Aipagarria da fantasiazko eta beldurrezko zinemari eskainitako munduko argitalpen garrantzitsuenetako batzuen ordezkariak etorri izana: Mad Movies (Frantzia), L'Ecran Fantastique (Frantzia), Nocturno (Italia), Dark Side (Britainia Handia) eta Toxic (Frantzia).





















| | San Telmo | | Kultur Etxeak | | Urgull | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | nº. | visit. | nº. | visit. | nº. | visit. |
| Artísticas: | | | | | | |
| Pintura | 2 | 16.558 | 18 | 15.169 | | |
| Artisautza | 0 | 0 | 3 | 700 | | |
| Marrazkia | 0 | 0 | 2 | 850 | | |
| Argazkigintza | 1 | 4.966 | 14 | 7.951 | | |
| Beste hainbat | 1 | 7.670 | 12 | 5.041 | | |
| Gaikakoak | 3 | 20.052 | 24 | 7.490 | 2 | 20.160 |
| **GUZTIRA** | **7** | **49.246** | **73** | **37.201** | **2** | **20.160** |

Boulevardeko Artearen Feria: 55 artista

Aldi baterako erakusketen bisitariak guztira: 49.246 + 20.160 + 37.201

Jarduerak eta argitalpenak:

| | San Telmo | Kultur Etxeak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Jarduerak | 32 | 62 | 94 |
| Argitalpenak | 3 | 35 | 38 |
| Bertaratutakoak guztira | 4.365 | 77.838 | 82.203 |

Kultur Etxeetako, San Telmo Museoko eta Urgull Mendiko erakusketa eskaintza anitza mantendu du DONOSTIA KULTURAk. Boulevardeko Artearen Feria Gipuzkoako Elkarte Artistikoak kudeatu du, eta urtetik urtera gero eta sendoago dago (aurtengoa da antolatzen den bosgarren urtea), izan ere, sorkuntza eta hiria elkarren artean hurbiltzeko eskaintza paregabea baita.

Aurten ere, hirugarren urtez jarraian, Artelekuk, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta D.A.E.-k (Donostiako Arte Ekinbideak), hainbat arte-ekimen sortu dituzte artea lantzeko espazio eta topagune berriak aztertzeko asmoz.





# SAN TELMO MUSEOA

**1. Museoaren inbentarioa:**

| | |
|---|---|
| Arkeologia | 606 objektu |
| Arte Ederrak | 4.361 objektu |
| Etnografia | 4.087 objektu |
| Argazkigintza | 7.301 objektu |
| Historia | 1.516 objektu |
| **Guztira** | **17.871 objektu** |

**2. Bisitariak**

| | |
|---|---|
| Banakakoak | 41.455 |
| Taldeak | 6.094 |
| **Guztira** | **47.549** |

**3. Jarduerak:**

7 Aldi baterako erakusketak
4 Hitzaldiak eta mahai-inguruak (hauetatik 2 S.T.M.L.E. erakundearen laguntzaz)
2 Tailer didaktikoak (Helena Elbusto eta Gipuzkoako Elkarte Artistikoaren laguntzaz)
1 **Artnouveau** Nazioarteko Mintegia (Deustuko Unibertsitatearen eta Vicomtechen laguntzaz)
6 Kontzertu (1 S.T.M.L.E. erakundearen laguntzaz, 1 Musika Hamabostaldian, 1 Musikaldian, 1 Musika Eskolak, 1 Antzerki Feriak)
13 San Telmo Museoren Lagunen Elkarteak antolatutako bestelako jarduerak
6 Lankidetza: Antzerki Feria, Musika Hamabostaldia, Plaza Jaialdia, MID eta bestelako erakundeekin.

**4. Museoak garatu dituen beste hainbat jarduera**

337 Pieza eskuratu dira dohaintzaz edo gordailu modura: arte ederretako 23 pieza eta etnografiako 314 pieza.
1.903 Pieza inbentariatu dira euskarri informatikoan.
7.783 Pieza digitalizatu dira.
101 Pieza landu dira Zaharberritze Tailerrean.
88 Pieza 16 erakunderi utzi zaizkie.
111 Museoko pieza izan dira ikusgai Urgulleko erakusketan.
100 Erakunderekin (museoak, galeriak, etab.) argitalpenen trukeak egiten dira.
400 Titulu berri gehitu zaizkio Museoaren Liburutegiko fondoari.











## GURE HELBIDEAK NUESTROS CENTROS

- **Donostia Kultura** (egoitza sede)
  Konstituzio plaza, 1 • Tel.: 943 481150

## KULTUR ETXEAK CENTROS CULTURALES

- Casares
  Darieta bidea,1 • Altza • Tel.: 943 351149
- Altza
  Larratxo pasealekua, 55 • Altza • Tel.: 943 396494
- Egia
  Baztan, 21 • Tel.: 943 291514
- Ernest Lluch
  Anoeta pasealekua, 7 • Amara • Tel.: 943 481919
- Larrotxene
  Intxaurrondo kalea • Intxaurrondo • Tel.: 943 291954
- Intxaurrondo Berri
  Gaztela kalea, 2 • Intxaurrondo • Tel.: 943 279343
- Loiola
  Aralar kalea,17 • Loiola • Tel.: 943 454605
- Lugaritz
  Heriz pasealekua, 20 • Antiguo • Tel.: 943 310780
- Okendo
  Nafarroa hiribidea, 7 • Gros • Tel.: 943 290672

## ANTZOKIAK TEATROS

- Victoria Eugenia
  Argentinar Errepublika, 2
- Antzoki Zaharra - Teatro Principal
  Kale nagusia, 3 • Tel.: 943 426112
- Lugaritz
  Heriz pasealekua, 20 • Antiguo • Tel.: 943 310780
- Egia (Gazteszena)
  Baztan, 21 • Tel.: 943 291514

## MUSEOA MUSEO

- San Telmo Zuloaga,1

## LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS

- Liburutegi Nagusia - Biblioteca Central
  Alderdi Eder • Tel.: 943 481486
- Haur Saila - Sección Infantil
  Fermin Kalbeton, 25 • Tel.: 943 420018
- Larratxo Haur Liburutegia - Biblioteca Infantil
  Txirrita Bertsolaria, 22 • tel.: 943 392625
- Auzoetako Liburutegia - Bibliotecas de Barrio
  (Kultur Etxeetan - En los Centros Culturales)